

2020. urteko literatur bizitza

Literatura. Argitalpena bizitu egin zen uda ostean, urrunetik bizi behar izan genuen Durangoko Azoka birtualean zabaltzeko asmoz

JON KORTAZAR

Esan beharrik ez dago: gure bizitzako urterik latzena izan dugu 2020ko hau. Latza eta garratza. Tristeia urtea, tristeia bizitza. Tristeia seniderik gabe, adiskiderik gabe bizi behar berria. Oso urte malapartatua. Tragedia edonon, bizitzan, ekonomian, gizartean...

Aurrera egin beharrak, baina, eman du aurtengoan ere betiko gogoan izango dugun libururik. Datorren urtean zer egingo duten jakin ezinik dabilta zenbait editore, krisiak jota. Horregatik, agian, azken orduko nobedadeak aipatu beharko genituzke, gogor jo duen enbatapetik irteteko.

Esan dute etxeetan sartuak izan garen artean gehiago irakurri dela eta gehitu egin dela zaletasuna, baina era berean, liburu dendak itxita egon direnez, ez dakit zein punturaino zabaldu den euskal liburuaren irakurketa. Dena urrunetik egitera ohitu garen honetan, hoztasuna da ezaugarri nagusia.

Argitalpen erritmo aldetik ere, bitan banandu da urtea. Martxo artean oso gutxi argitaratu zen. Eta ekainean etxetik irteten hasi ginean, lehenagotik prest zeuden liburuak aurkitu genituen erakuts mahaietan gure zain. Argitalpena bizitu egin zen uda ostean, urrunetik bizi behar izan genuen Durangoko Azoka birtualean zabaltzeko asmoz.

Lehen labealdiko kontakizun lan bi aipatu nahi nituzke: Pello Lizarralderen 'Argiantza' nobela laburra eta Luis Garderen 'Aireportuko musika' nobela erraldoia, biak ala biak egileen kontaktzeko maneraren erakusgarri. Lizarraldek bere sotiltasuna erakutsi du, deskripzioaren sen ederra, estiloaren agerbide fina. Gardek Nafarroako historia hartu du berriro gaitzat, eta polifoniaz, elementu desberdinen pilaketaz ondu du bere nobela, oso konplexua den gizartearen berezitasunak emateko.

Kontakizunaren generoan oso oparo agertu da Elkar argitaletxea. Elkarren antza duten nobela bi dira aipatuko ditudanak. Joxean Agirrerren kontagintzak aurrera jarraitzen du eta bere jarraipena egin dezakegu ia urtero. Aurton, 'Nobela errealista bat' deiturikoa taxilari berritsu baten inguruan eraturik (Ramon Sazarbitoria omen da bere idazkera munduko aipamen eza-guna), euskal erresistentziaren anekdotak nahastu ditu trama poliziakoarekin; bere idazkeran zu-



Uxue Alberdi idazle, kazetari eta bertsolari elgoibartarra.

tabe diren umorea, ironia, eta sexuaren aipamenak ez dira falta.

Bestelakoa da Antxiñe Mendizabalaren 'Odolekoak' idazlana. Kronika historiko gisa eratu bada ere, frankismo garaia emakumearen izaeran egindako kaltea harilkatzen du bere kontakizunean. Frankismo ostea du kontuan Uxue Alberdik 'Dendaostekoak' Susak argitaratutako nobelan. Bertan dendako lana askatasun pertsonal gisa ageri zaie Elgoibarko 'Pitxintxu'

Dena urrunetik egitera ohitu garen honetan, hoztasuna da ezaugarri nagusia

denda martxan jarri zuten ahizpa biei. Kronika mundua esku onez erabili badu ere, Uxue Alberdik testu honetan, tradizioaren eta modernitatearen arteko kinkaz dihardu irakurlea harrapatu egiten duen ahozkotasanetik asko duen kontakizunean.

Badirudi, eta ez da berri txarra, Alberdania argitaletxea bizkortzen ari dela, eta aurton kontakizunaren generoan sei liburu berri kontatu ditzakegu bere katalogoan.

Horien artean aipagarria da Anjel Lertxundiren 'Gilles de Rais' eleberria. Idazle sendo hori ez dugu aurkeztu beharrik eta berriro erakutsi du bere maisu lana lehena-go ipuin moduan argitaraturiko gaia nobela gisa emanez orain. Fikzioa fikzioaren barnean atondu du historian eta bizitzan gerta daitzekoen manipulazioa eta faltsukeria agertzeko. Yurre Ugarteren ipuin liburuak ere merezi du aipamentxo bat laburpen arin honetan. 'Lilurabera' liburuan zortzi kontakizun bildu ditu pertsonaien artean batasuna lortuz: liluratuak izatea da beren bidea, eta batzuetan galbidea.

Poesiak ere eman ditu bere fruitu oparoak 2020ak. Urtearen bukaeran Susa argitaletxeak aspaldi genero horretan isilik zeuden ahots bi argitaratu ditu. Leire Bilbao da lehena, bere 'Etxeko urak' hunkigarriarekin. Amatasunaren inguruan eraikia, mundu ikuskeran anitza eman du bere bertso sotil eta argietan. Mundu oso bat erakutsi nahi izan du Miren Agur Meabek ere 'Nola gorde errautsa kolkoan' liburuan. Liburu anitza. «Bizitzak guretzat planik ez duela onartzea» lemapean liburu berezia eman du. Gai asko, tonu asko, liburu desberdinez osaturiko liburu aberatsa da Meaberena. Balea Zuria argitaletxeak ere poema bilduma bi eman ditu argitara. Itxaro Bordaren 'Abaroa' aipatu beharko dugu, hau ere tonu asko bilduz osaturiko liburu bete. Eta nola ahaztu Peru Magdalena idazle ia aszetikoaren 'Tantaka' haikuz osaturiko liburu berezi ñimiñoa?

Uda aurretik, baina, Pamielaren eskutik beste poesia uzta ederra izan genuen. Jon Gerediagak ohi duen naturaltasunez 'Natura berriak' eman zuen plazara, liburu fin sotila. Jose Angel Irigarayren 'Isiltasunaz hunatago' ahaztuxea genuen poeta nagusi baten lana da, errekupezakoa eta errebinkazioa. Obra nagusi baten erakusgarri.

Urtea bukatzeaz zegoela beste liburu berezi bi agertu dira. Bernardo Atxagak 'Kilker bat autopistan' argitaratu du, Euskadi Irratian egin dituen kolaborazioen bilduma, testuak entzumenerako prestatuak direla, eta ez horrenbeste begiradarako, gogoratuz. Honetaz eta hartaz ari da egilea eta bere ardurak eta pentsakizun mundua agertzeko erakusleho zabala eman du. Eta harekin ia eskura Joseba Sarrionandiaren autobiografiako 'Gauzak direna balira (Habanako gaukaria)' bere alderantzizko egunkariaren hirugarren eta azken alea etorri zaigu irakur mahaira.

«Ez lirarteke aldatuko gauzak direna balira» esanez bukatu du liburu Joseba Sarrionandiak, eta aldatetaren menpe izan dugun urtea bukatu dezakegu esaldi horrekin. Datorkigula hobea!